

XaguArtea

2009ko abenduaren 21a

Xaguon aldizkaria

48. alea

Eusko Ikaskuntzaren bilera



Urtean zehar egiten dituzten bi bileretako bat Zerainen egin zuten Eusko Ikaskuntzako hainbat arduradunek, joan den abenduaren 12an. Goizeko 12etan udal ordezkariak harrera egin zietan udaletxean (argazkian ate aurrean); ondoren Aizpeko burdinaren mendira bisita egin zuten; eta azkenik, udaletzeko ganbaran egin zuten urteko bilera.



XAGUARTEAREN urtemuga

Duela 4 urte, 2005eko abenduaren 19an iritsi zen Zeraingo etxeetara XaguArtearen lehenengo alea. Orduz gero, hutsik egin gabe, hilero-hilero kaleratu dugu xaguon aldizkari xume hau. Urtemuga honetan, berau egiten dugunok eta orokorrean zeraindar denak zoriondu nahi ditugu. Baina etorkizunean beste urte asko bete ditzan, guztion laguntza beharrezkoa izango da. Zorionak guztioi eta urte askotarako XaguArte!

Gabon jaiak

Gain-gainean ditugu aurtengo Gabon jaiak. Etxeetan, mahai bueltan nahiz argipetan, izango da zer ospatua. Baina urteroko moduan, herrian ere izango dugu juntatzeko eta elkarrekin ospatzeko aukerarik.

Gabon egunean, abenduaren 24an, ohitura zaharrari jarraituz etxez etxe bi talde kantuan eta eskean ibiliko dira. Eguerdira arte herri-kaskoan eta inguruan ibiliko da herriko eskolako hurrez, irakasleez eta gurasoez osatutako taldea. Goizez (9etan irtenda) nahiz arratsaldez, gaztetxoaz eta bestelako herritarrez osatutako beste talde batek herriko



etxe guztiak alaituko ditu (goizean Barbari, Aizpe eta herri-kaskotik kanporako auzo eta etxe guztiak). Kantuan irtengo direnek asteazkenean, hilaren 23an, izango dute entsaio orokorra iluntzeko 7:30etan.

Gabon iluntzean, 7ak aldera, Olentzero etorriko da haurrentzat oparitxoak eta guztientzat gaztaina erreak hartuta. Herriko umeek eta koruak ongiatorria emango diote abestirik ederrenak kantatuta.

Eskola txikiak kezkatuta etor daitezkeen murrizketekin

“Eskola txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik”. Hala dio Eskola Txikien leloak, eta hala sinesten dute gure herri eta auzoetan eskolen aldeko apustua etengabe egin duten eta egiten duten guraso, irakasle eta agintariek. Iazko ekainean Zerainen egin zen festan argi geratu zenez, indartsu eta kementsu daude eskola txikiak etorkizunari begira. Baina etorkizun horretan badira argia estaltzen duten zantzuak ere. Izan ere, Gipuzkoako hainbat eskola txikitik murrizketak egin ditu edo egin

nahi ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak.

Egoera hori salatzeko Eskola Txikien koordinakundeak agiri bat irakurri zuen prentsaurrekoan, joan den abenduaren 15ean. Agiri horretan, etor daitezkeen murrizketek kezkatuta agertzeaz gain, eskola txikiak gure herri eta auzoetan beharrezko direla aldarrikatu zuten beste behin. Donostian egindako prentsa agerraldian izan ziren babesak ematen, Zeraingo Udaleko eta Basarte guraso elkarteko ordezkariak ere.



Olentzero Saria Xabier Lazkanok irabazi du

Zeraingo urteko azken bola txapelketa, Olentzero Saria, abenduaren 19 arratsaldean jokatu zen Liztormendi bolatokian. Hotzak beldurtu ez zituen ia 40 bolarik parte hartu zuten. Guztien artean, Xabier Lazkano nagusitu zen 38 birla botata. Bigarrena Nikolas Osaba izan zen 35ekin. Hirugarren, beste hainbeste jota, Luis Aizpeolea herritarra izan genuen eta laugarren, Andoni Berasategi sailkatu zen.

Elkarte penitentzia

Eguberri aurreko barkamenaren festa edo elkarte penitentziaren ospakizuna abenduaren 21ean, astelehenean, egingo da Zeraingo elizan, iluntzeko 7etan.

Yoga ikastaroa egiteko aukera

Oa Kultur Elkarteak Yoga ikastaroa egiteko aukera eskaintzen du. Herritarrek horrelako ikastaro batean parte hartzeko interesa balute, izena eman dezatela udaletxean, urtarrilaren amaiera baino lehen. Taldea osatuko balitz, interesatuak bilera batera deitu eta zehaztuko lirateke ikastaroren nondik norakoak.



Azken urtetako ohiturari jarraituz, aurten ere barrikotek izan dira Zeraingo Liztormendi elkartean. Abenduaren 12an gazteek egin zuten eurena, eta hilaren 18an, berriz, orokorra egin zen (argazkian ikus daiteke).



Ostatu jatetxeak negu atari honetan, ardi-jatea antolatu zuen abenduaren 5ean. Umore ederrean jan zituzten mondeju, gisatu eta beste, inguratu zirenek. Giroa alaitzen trikitilariak eta Lizaso eta Murua bertsolariak aritu ziren.

Diosala

Ez da giro, gabon aurreko egunotan. Elur eta bisuts, laino eta izotz, denetik egiten ari da ugari. Barrikotea ezin, ordea, alde batera utzi. Horrela etorri gara herri-ara, animoz beterik, atzo gaueko afarira. Baita ondo pasa ere. Portatu dira Jabier, Nekane eta semea, beste hainbatetan bezala. Eskerrik asko hirurei. Elenak abisua utzia zidan aurretik, bera ez zela soziedadean izatekoa baina egoteko lasai: Mandion ez bazen Ostatun, era batera edo bestera, erraz egingo genuela txanda honetako hitzaren kontua. Baita egin ere. Mariflorrek eta Mariajesusek eman didate mandatua: *diosala* dugu gaurkoa. Zer den ba ote dakidan. Nik baietz: hitza entzuna edo, gutxienez, irakurria dudala han-hemen. Arabekutsua ere hartzen diodala, inolako segurtasunik ez dudan arren, *dios* ondoko *ala* horri. Taberna-zuloko kontuak noski, "ardotxo bat hartuko al dezu" eta "estimatu dago baina sagardoa degu gaur" ari garen artean. Ikusi egin beharko, gero, sudur-puntak ezertarako balio izan didan.

Gure kintatik gorako zeraindarrek ba ote dakite *diosala* zer den? Proba egin dut soziedadean bertan, geroko utzi gabe, afari orduan. "Hiretzat zer dek *diosala*, Xanti?" Baita honek azkar erantzun ere. "Zer izango dek ba: *saludoa*". Argi dago beraz. Adin batetik gorakoek (Otatzan eta Larraondon, besteak beste) ondo dakite hitz horrek zer esan nahi duen eta zertarako erabiltzen den (edo erabiltzen zen). Orain ere esaten ote da, izan ere? *Diosala* erabiltzen ote da, bereziki, herriko gazte-gaztetxoek? Gogoarekin gelditu naiz. Soziedadean, gaueko ordu hauetan, ez zegoen nori galdetu. Ohean, etxean edo beste aterperen batean zeuden zeraindar gazteenak, ordurako. Beste batean beharko du, beraz.

Hiztegiara jo dugu, beste hainbatetan bezala, informazio eske. Zer dio Orotariko Euskal Hiztegiak, *diosala* horretaz? Sorpresa hartu dut.

Hitzaren azalpen nagusia ez du OEHk hitz-amaierako *a*-rekin ematen, *a* gabe baizik: *diosal*. Horrela erabiltzen omen zuen hitza, esate baterako, Zaldibiko Lardizabalek orain dela ehun eta berrogeita hamar bat urte: "*Aingerua sartu zitzaion eta diosal au egin zion: Agur Maria, graziaz betea*". Edota, aurreraxeago: "*Elkarri diosal-egiñik, nor bere lekura aldegin zuen*". Horrela zerabilen Arrue maisuak ere, bere Genobeba Brabantekoan: "*Beste gañerakoak beren diosal eta ongi-itorria ondo egiteko lekurik artu gabe*".

Non erabili izan da hitz hori? Zerainen bakarrik ez, jakina. Hori baino askozaz hedadura zabalagoko hitza dugu *diosala*. Hona hiztegiak zer dioen: "Documentado en autores guipuzcoanos, que emplean *diosal* (de forma segura ya en Lardizabal) y alto-navarros (*diosala*)". Batez ere Gipuzkoako eta Nafarroako hitza dugu, hortaz, *diosal(a)*.

Zer forma hartu izan ditu hitzak, han-hemen? Forma askotxo. Gehienak ez dabilta, ordea, elkarrengandik oso urruti: *diosal* (Gipuzkoako eta Nafarroako zenbait lekutan), *diosala* (Gipuzkoa gehienguan, bai det eta bai dot esparruan, eta Nafarroa garaian), *diesol* (Nafarroa bietan: garaian eta behekoan), *jeusala* eta *josala* (Ultzama aldean), *diasola* (Gipuzkoako Beterrin, Tolosara bitartean), *diosola* (Azpeiti aldean eta Nafarroa garaian). Lizarragak Elkanokoak (Iruña inguruan) *diosale* eta *diosale egin* erabili erabili izan zuen inoiz, gehienetan *diosala* (inoiz *diosal*) idatzi arren. Iparraldeko autorerik ere bada tartean, antza, hitz horretaz baliatu izan denik. Gehienetan hemen erabilia ageri da, ordea.

Hitz horrek zer esan nahi duen argi dago, oso, hiztegian: "*Saludo*", "*Saludes*, *agurrak*, *diosalak*, *gorainziak*". Larrramendik honela omen dio berean: "*Resaludar*, *diosala egin*". Nondik ote dator hitza? Ostatuko barran bururatu zaidan "*dios + ala*" sekuen-

tziatik? Apenas: frantsesezko azalpenak dioenez, beste hau du iturria: Abréviation de "*Dios te Salve*". Hor ere, esplikazio argia ematen du hiztegiak: "*salut*, *salutation*, *compliment*". Adibideak, berriz, ugari datoz. Gehienak Gipuzkoakoak eta Nafarroakoak.

Zergatik ari zaigu *diosala* hitza Zerain aldean galtzen? Ez dakit, egia esan. Baliteke, kasu honetan, beste sinonimo batzuek lekua jan izana azken mende luzean, apurka-apurka. *agur* eta *ongi etorri* hitzek, esate baterako, aurrera egin dute nabarmen gure artean, hala esango nuke nik behintzat, *diosala* baztertuz. *Goraintzi* hori, berriz, forma jaso eta dotoretzat dugu Goierri, ez eguneroko hitz arrunta. Aldiz *agur* eta *ongi etorri* oso bizirik daude gure artean, egungo egunean: "*agurra ukatu dio*", "*bihotzez agurtu dute*", "*ongi etorria eman gabeko onik ez zuen*" eta abar. Sinonimia-kontu hori indarrean zegoen, agian, aspaldidanik. Ikus, adibidez, honako esaldi hau: "*Jende bolada aren poz-agur, ongi-etorri ta diosalen ondoren*". Beste hainbat kasutan bezala, sinonimia horrek ez dirudi ordea erabatekoa. Baina uztarrri berean ageri dira, hor eta beste zenbait lekutan, *diosala* eta *agurra* edo *ongi etorria*. Bigarren kasurako ikus Elkanoko Lizarragaren esaldi hau: "*Guziai egiteko leneko diosal, ongi etorri eta bertze demostrazio aiek berak*". Labur bilduz: euskal hitz-altxorren barneko birmoldaketa baten aurrean gaudela iruditzen zaigu, oraingo. *Agur* eta *ongi etorri*, nolana ere, *diosala* hori.

Mikel Zalbide eta
Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

AZAROA	al	ar	az	og	or	lr	ig
							1
Euria (l/m)	GUZTIRA: 326,25 l.						25
C° altuena	ALTUENA: 23°						23
C° baxuena	BAXUENA: 2°						12
	2	3	4	5	6	7	8
Euria (l/m)	2	0	9,5	51	24	23	81
C° altuena	15	18	16	8	13	11	9
C° baxuena	10	11	10	7	7	4	7
	9	10	11	12	13	14	15
Euria (l/m)	76	21	2	0	0	2	1
C° altuena	8	12	16	19	18	18	20
C° baxuena	6	4	10	11	14	13	12
	16	17	18	19	20	21	22
Euria (l/m)	0	3	0	0	0	0	0
C° altuena	21	17	14	20	19	18	17
C° baxuena	12	15	7	7	13	14	10
	23	24	25	26	27	28	29
Euria (l/m)	0	0	5,5	0	0,25	0	11
C° altuena	17	16	17	13	13	14	13
C° baxuena	7	4	11	7	3	7	7
	30						
Euria (l/m)	33						
C° altuena	8						
C° baxuena	2						

Euria erruz egin du azaro epelean

Egun hauetako eguraldiari begiratu-ta, eta hezurretarrainoko hotz honen bueltan, ahaztu ere egin zaigu zeinen giro epela izan dugun azaroan. Hainbat egun izan ditugu tenperatura 10 gradutik jaitsi gabekoak, beraz normalean gris antzekoa izaten den hilerako, nahiko giro epela. Baina bestetik, urtegiak betetzeko adina euri egin du: 326, 25 litro guztira. Batez ere hilaren lehen astean bota zuen erruz euria.



Arkume jaio berriak gustura ibili dira larrean azaroan.

Abian da bost herrien arteko pilota txapelketa



Aizkorpe alde honetan azken urteotan jokatzen den bost herrien arteko pilota txapelketa martxan da aurten ere. Zerainen Gabon bezperan, abenduaren 23an, arratsaldeko 16:30etan

jokatuko dira pilota partidak haur, gaztetxo eta gazteen mailan. Aurten herritar ordezkari bakarra dugu: Mikel Ori. Saillkapen faseen ondoren, finala Zegaman izango da.

Ostatu oporretan

Datorren abenduaren 26tik urtarrilaren 10a bitartean (biak barne), itxita egongo da Ostatu jatetxe eta taberna, oporrak direla eta.

Sagardotegien irekierak

Badator kupelak irekitzeko garaia. Urtarrilaren 15ean, ostirala, izango da Otatza sagardotegiaren irekiera eguna. Hurrengo egunean, abenduaren 16an, irekiko ditu atea Oihartek. Ea denboraldi ona izaten duten eta sagardo onaz eta lagunarte hobez gozatzeko aukera dugun guztiok!

